

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 17koa, HABEren zuzendari nagusiarena, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurkeztutako curriculum-proiektuak onartzen dituen.

2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua, Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaz ari denean, eta, HEOCaren ezarpenerako, xedatzen du euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua (ECPa) aurkeztu behar diola HABEren zuzendari nagusiari, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarriz, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz.

Era berean, Agindu horren 7. artikuluan ezartzen da euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bost urtetik behin, gutxienez, eguneratu beharko dutela curriculum-proiektua, ikasgeletan zein euskaltegietan nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroetan lortzen dituzten emaitzen baitan, prozesu horretan hizkuntzen ikas-irakaskuntzak eta teknologiak izan ditzaketen aurrerabidea euskaltegien nahiz euskararen autoikaskuntzarako zentroyen errealitate eta ikasleen beharretara egokituz.

2015eko Curriculum Aginduan araututakoari jarraikiz eta 2018ko abenduaren 10eko Ebazpenean HABEren zuzendari nagusiak ebatzitako epemuga errespetatuz, 2023an euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek curriculum-proiektuak eguneratu dituzte HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 30eko Ebazpen bidez emandako 2022/2 jardunbidearen I eranskineko 6. oinarriaren arabera.

2023ko ECParen eguneratzean, euskaltegiaren jardun didaktikoaren gaineko gogoeta eskatu da, errealitatearen gaineko deskribapenetik hasi eta egungo egoeraren analisia egitea, alderdi positiboak eta negatiboak txertatuz, eta aurrera begirako erronkak edota helburuak zerrendatuz, zer egin nahi den eta nola lor daitezkeen helburu horiek zehazteko ahalegina egiteko, garrantzizkoa baita argi izatea proiektuaren ahuleziak eta indarguneak. Izan ere, irakasleek era koherentean lan egin dezaten, beharrezkoa da tresna bat izatea irakasle-taldeak hartu beharreko erabakiak sistematizatuko dituen eta, era berean, argi izatea erabaki horiek eraginkorrak izango direla, baldin eta gogoetaren ondorio badira eta irakasleek beren gain hartzen badituzte.

Helburua da eskakizun administratiboaren langa gainditzea eta euskaltegien funtzionamenduaren oinarri eta erreferentzia gisa baliatzea, Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaz jardutea lagungarria baita jarduera didaktikoaren gainean gogoeta egiteko eta erabakiak hartzeko. Beraz, erronka da dokumentuari erabilera handiagoa ematea eta, aldi berean, ECPan jaso beharrekoak lantzen joatea.

HABEn jasotako dokumentuen balioespen-prozesua amaituta, HABEren Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak curriculum-proiektu horien guztien balorazio-txostena helarazi zien euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyei 2023ko abenduan, eta, ondorioz, 25 euskaltegi osatu egin behar izan dute ECParen ataletan azaleratutako informazio-gabezia eta, ondoren, aurkeztu eguneratutako ECParen azken bertsioa, aipatu

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

txostenean bildutako ohar nahiz jarraibideei jarraikiz; betiere, HABEren zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 30eko Ebazpeneko 2022/2 jardunbidearen 5. oinarrian zehazten den irakurketa-gida oinarri hartuta.

Behin euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek burututako HEOCaren araberrako egokierak HABEen jasota, HABEren Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak curriculum-proiektu horiei dagozkien balorazio-txostenak igorri dizkie berriro ere interesdunei.

Horrenbestez, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek aurkeztutako curriculum-proiektuak aztertu, eta HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Curriculumaren Garapena eta Prestakuntzaren Arloak egindako txostena balioetsi ondoren, 2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumuma ezartzen duen Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ondoren datozenen Curriculum Proiektuak Euskaltegien eta Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistrora biltzeko agindua ematea:

AEK E-uskaltegia	Beasaingo U.E.	Getxoko U.E.
Aita Villasante U.E.	Bedita Larrakoetxea U.E.	Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
Aitzol U.E.	Bergarako U.E.	Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia
Aixkiria Euskaltegia	Bidasoako AEK Euskaltegia	Groseko Irrintzi AEK Euskaltegia
Altza Euskaltegia	Bilbo Zaharra Euskaltegia	Hego uribeko AEK Euskaltegia
Amara Berriko AEK Euskaltegia	Busturialdeko AEK Euskaltegia	Hegoalde Euskaltegia
Amurrioko AEK Euskaltegia	Debabe U.E.	Hernanialdeko AEK Euskaltegia
Andoaingo AEK Euskaltegia	Debagoienako AEK Euskaltegia	Hernaniko U.E.
Antiguako AEK Euskaltegia	Deustuko Unibertsitatea - Euskal Irakaslegoa Euskaltegia	Herri Jakintza Euskaltegia
Arana AEK Euskaltegia	Durangaldeko AEK Euskaltegia	Hitzez Euskaltegia
Arrasateko U.E.	Durangoko U.E.	Hondarribiko U.E.
Arratiako AEK Euskaltegia	Eibarko U.E.	IkaGasteiz Euskaltegia
Arrigorriagako U.E.	Eibarraldeko AEK Euskaltegia	Ilazki Euskaltegia
Azpeitiko U.E.	Enkarterriko AEK Euskaltegia	Indautxu-Iralako AEK Euskaltegia
Bai&By Bilbo zentroa	Enkarterriko U.E.	Irungo U.E.
Bai&By Donostia zentroa	Erandioko U.E.	Jose Antonio Agirre Euskaltegia
Bai&By Gasteiz zentroa	Ermuko Kaltxango AEK Euskaltegia	Juan Mateo Zabala Euskaltegia
Barakaldoko AEK Euskaltegia	Errenteriako U.E.	Labayru Fundazioa Euskaltegia
Barakaldoko U.E.	Gabriel Aresti Euskaltegia	Lasarte-Oriako U.E.
Basauriko U.E.	Galdakaoko U.E.	Lasarte-Oriako AEK Euskaltegia

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Laudioko AEK Euskaltea	Mondragon-Lingua Donostia zentroa	Txorierriko U.E.
Laudioko U.E.	Mondragon-Lingua Gasteiz zentroa	Udaberria Euskaltea
Lautadako AEK Euskaltea	Mungia U.E.	Ulibarri Euskaltea
Lea Artibaiko AEK Euskaltea	Muskizko U.E.	Uribe Kostako AEK Euskaltea
Legazpi 6 Euskaltea	Oarsoaldeko AEK Euskaltea	Urola-Kostako AEK Euskaltea
Legazpiko U.E.	Oiongo Euskaltea	Urrats Euskaltea
Leintz U.E.	Pasaia U.E.	Urumea Euskaltea
Leizaur Euskaltea	Portugaleteko U.E.	Urretxu-Zumarragako U.E.
Lizardi-AEK Euskaltea	Santurtziko AEK Euskaltea	Xaribari AEK Euskaltea
Maizpide Euskaltea	Santurtziko U.E.	Zadorra AEK Euskaltea
Mastitxu Euskaltea. Leioako U.E.	Santutxuko AEK Euskaltea	Zarauzko U.E.
Matxintxu-Larrako AEK Euskaltea	Sestaoko AEK Euskaltea	Zornotza U.E.
Meatzaldeko AEK Euskaltea	Sestaoko U.E.	Zornotzako Barnetegia Euskaltea
Mikelats Euskaltea	Sopelako U.E.	
Mondragon-Lingua Bilbao zentroa	Trapagarango U.E.	

Bigarrenkoa. Ebazpen hau euskalteei jakinaraztea eta, hala badagokio, Ebazpenaz gain Curriculum Proiektua garatzeko, inplementatzeko eta hobetzeko egokizat jotzen diren iradokizunak, irizpen arrazoituak edota orientabideak ere ematea.

Hirugarrena. Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epearen barruan.

Donostian, 2024ko maiatzaren 17an

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia